

AZPEITIKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL PLANA

KOORDINATZAILEA: OREKA SAREA S.L.



AZPEITIKO PAREKIDETASUN SAILA
Telf.: 943157928 parekidetasuna@AZPEITIA.NET
Enparantza Nagusia, 5 - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)

Dokumentu honetan berdintasunaren alorrean Udalak datozen 4 urteetan garatuko dituen plangintza eta orientabideak biltzen dira. Honen bitartez, Udalak sexuen arteko parekidetasunarekiko daukan konpromisoa berretsi nahi du.

Baina berdintasunaren aldeko irizpideak agenda politikoetan barneratzea aurrerapauso garrantzitsua den arren, lan merkatuari, partaidetza politikoari, etxeko lanen banaketari, emakumeen aurkako bortizkeriari, pobrezia eta abarri buruzko datuek emakumeen diskriminazioa ahalbidetzen duten mekanismoak oraindik ere indarrean daudela erakusten dute. Modu honetan, gizon eta emakumeek aukera berdinak izateko duten eskubidea bermatzeak gaur eguneko erronka nagusienetakoa izaten jarraitzen du. Helburu hau gauzatzeko beharrezkoa da maila publiko eta pribatuan aldaketa sakonak ematea: legedia moldatuz, jarrera eta portaerak aldatuz eta emakumeen partaidetza mugatzen duten gizarte egiturak eraldatuz.

BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEA

Sexu bereizkeria desagerrarazteko helburuarekin maila foral, autonomikoan, estatalean eta baita nazioarte mailan ere arau eta lege ezberdinak onartu dira. Hala nola, emakumeen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBERen Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, konpromiso hau hartu zuten NBEko kideek: "printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz benetan betearazten dela bermatzea".

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Itunaren 3.2.artikuluan, Batasuneko eta kide diren estatuetakoa politika eta ekintza guztietan, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua barneratu behar dela aipatzen da.

Estatu espainiarreko legedian 1978.urteko Konstituzioan agertutako xedapenak aplikatzeaz gain, alor ezberdinak erregulatzen dituzten araudiak landu eta onartu dira (hezkuntza, osasuna, eskubide erreproduktiboak, Administrazio Publikoa...) Arau hauen ekoizpena gehitu egin da azken bi urteetan berdintasunaren alde lanean dauden erakunde eta mugimendu ezberdinetatik proposaturiko arazoei irtenbide bat bilatu nahian, lege berri garrantzitsuak landu eta onartu baitira. Hala nola, espainiar parlamentuak onartutako Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako Legea eta Genero Indarkeriaren aurkako Legea.

Nahiz eta estatu eta Europa mailan landutako araudiek tokiko berdintasun politiken markoaren lehen urratsa finkatu, Azpeitiko genero diagnostia lantzeko jarraitutako erreferentziazko dokumentuak **4/2005 Legea, otsailaren 18koa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa** eta **EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV.Plana** izan dira.

4/2005 Legearen xedeak adierazten duenaren arabera *"Lege honen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan berri-agintean jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, bai eta zenbait neurri arautzea ere bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia bultzatzeko eta emakumeek gizartearen, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko. Horrek guztiak azken finean bilatzen duena da berdintasuneko gizartea lortzea, non pertsona oro libre izango den bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, hala eremu publikoan nola pribatuan, obiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; gizarte bat non berdin aintzat hartu,*

baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonen dituzten portaera, jomuga eta beharriak.” 4/2005 Legean emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde administrazio bakoitzari dagozkion betebeharrak zehazten dira, eta botere publikoak sexuen arteko berdintasuna lortzeko baldintzak sustatzera eta oztopoak ezabatzerako derrigortzen ditu.

Autonomi Estatutuaren 10.artikuluaren araututako eskumenak oinarritzat harturik, 4/2005 Legean gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, maila administratibo bakoitzak bete beharreko funtzioak zehazten dira, eta 7.artikuluaren **tokiko administrazioen eginkizunak** aurkezten dira:

- a) *Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratzeko aldera.*
- b) *Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.*
- c) *Toki-eremuan programak egitea, Jaurkitzearen plangintza orokorraren esparruaren barruan eta for-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.*
- d) **Estatistikak egokitu eta eguneratzea**, horien bitartez toki-erakundearen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizirik dituzten ezberdintasun egoerak ezagutu ahal izateko.
- e) *Toki-eremuan, **emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.***
- f) *Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.*
- g) **Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea**, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- h) *Herritarrei, eta batez ere emakumei, **informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz**, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumei oinarritzeko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.*
- i) *Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzeko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izatera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.*
- j) *Emakumei eta gizoni bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izatera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.*
- k) **Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea**, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- l) **Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.**
- m) *Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.*

Azpeitiko berdintasun politiken ibilbidea aztertzerakoan 2001.urtean kokatu behar gara, orduan aurkeztu baitzen Ekintza Positiboko I. Udal Plana, baina hura martxan jartzeko beharrezkoak ziren baliabideen gabeziaren ondorioz bere inplementazio maila oso baxua izan zen. Aipatzekoa da hala ere, eraso sexual eta sexisten biktimei eskainitako zerbitzuen zabalkuntza Emakumeen Mahaia sortu zenetik indartu egin zela (2003), izan ere, aholkularitza judiziala, psikologikoa eta larrialdietarako pisuen zerbitzua Ekintza Positiboko Udal Planaren barnean proposatutako ekintzen artean kokatzen baitziren. Emakumeen Mahaia, genero berdintasunaren inguruan urteetan zehar (modu autonomoan eta antolatuan) lanean aritu diren emakumeek osatzen dute. Hasieran Gizartekintza arloan kokatzen baldin bazen ere, 2007.urtean Parekidetasun Saila sortzen da eta honekin batera Emakumeen Mahaiaren araudi berria definitzen da, eta parte hartzerako gune honi erabakiak hartzeko ahalmena ematen zaio. Urte berean, Parekidetasun teknikariaren postua

betetzeko deialdia egin eta lanaldi osoarekin, genero berdintasunean prestakuntza berezia duen langilea kontratatzen da.

GENERO ANALISIRAKO TRESNAK

Mainstreaming-a: 4/2005 Legearen arabera (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa), mainstreaming-a, “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea” da.

Ahalduntzea edo jabekuntza: Ahalduntzearen edo jabekuntzaren estrategia 4/2005 Legean dago bilduta, konkretuki, 1.artikuluari; xedeari dagokionez, *“lege honen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, bai eta zenbait neurri arautzea ere bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia bultzatzeko eta emakumeek gizartearen, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko”* esaten da.

Emakume eta gizonei dagokienez, gure gizartearen desoreka handiak daude botere, baliabide eta etekinen banaketan. Bizitzaren eremu guztietan agertzen dira botere-harreman desorekatuak, eta hainbat modutan adierazi daitezke, emakumearen autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta gizarte-arlokoa ukatuta.

Hierarkia-harreman horiek ezabatu eta botere oreka lortzeko, emakumeek boterea eskuratu behar dute, gizarte arloan genero harreman berriak eraikita eta boterea beste modu batera ulertuta: emakumeen erabateko autonomia eta herritartasunean oinarrituta, alegia.

Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna: Sistema patriarkalak sortutako lanen banaketa sexualak, gizonak soldatapeko lanetan kokatzen ditu, hornitzaileen egitekoa esleituz eta emakumeak berriz etxeko lanetan, soldatarik gabe eta egindako lanari balio espezifikorik esleitu gabe. Etxeko lanen balioespen eskasak, lan hau ikusezin bihurtzen du.

Bateragarritasunaz eta erantzunkidetasunaz ari garenean, sexu bakoitzari egotzitako rol eta lanen arteko banaketaren eraldaketaz ari gara, gizarte eredu berri baten bidean ezinbesteko baldintza izango dena. Eredu berri horren helburua bizitzaren maila guztiak orekatzea da, etxeko eta zaintza lanen banaketa justuak emakume eta gizonen garapen integrala ekarriko baitu.

Emakumeen Aurkako Indarkeria: Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larriena da. Arazo honi irtenbidea emateko ezinbestekoa da biktimei babesa eta arreta eskaintzeko neurriak eta baliabideak antolatzea, baina aldi berean beharrezkoa da diskriminazio mota guztien aurka lan egitea bizitzako eremu ezberdinetan: komunikabideetan, lana eta enplegu munduan, erabaki guneetan, familiarrean...

Ekintza positiboa: 4/2005 Legeak Aurreneko Tituluaren 3. artikuluan biltzen duen bezala, ekintza positiboaren bitartez, berdintasun eskubidearen ziurtapena lortu nahi da. Horretarako, botere publikoek neurriak hartuko dituzte emakumeen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta ordezkarietan berdintasuna eta oreka ziurtatzeko. Ekintza zuzena, beraz, ez da berdintasunaren aldeko neurri soil bat, diskriminazio formen kontrako neurri praktikoa bat baizik. Horrela, aipatutako lege artikuluan ekintza positiboa

modu honetan definitzen da: *Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-aginteeek denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren xioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzekeo edo murrizteko.*

Zuzeneko bereizkeria eta zeharkako bereizkeria: Sexu arrazoiengatik eman daitekeen diskriminazio zuzena zein zeharkako diskriminazioa 4/2005 Legeak modu honetan definitzen ditu bere eta Aurreneko Tituluaren 3. artikuluan:

Zuzeneko bereizkeria dago pertsona bat sexuaren xioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla eta haurdun egonda edo ama izanda, esaterako beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaiztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren xiozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.

Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Behar praktikoak eta interes estrategikoak: Herritarren behar praktikoen eta interes estrategikoen azterketa egitean datza. Behar praktikoak gizarteko gizon eta emakumeen oinarritzko bizi baldintzei dagozkienak dira, eta pertsonen bizi egoera hobetzeko baliagarriak dira. Interes estrategikoei aldiz, baliabide eta etekinei egiten diete erreferentzia eta gizarte konkretu batetako gizon eta emakumeen posizioa hobetzera zuzentzen dira. Baliabide eta etekinen iriste gaitasunarekin daude lotuta.

Lan banaketa sexuala: Gizarteek genero bakoitzari esleitutako funtzioekin dago lotuta: gizon eta emakumei betebeharrak ezberdinak ezartzerakoan eremu ezberdinetan kokatzen dira, garapen integralerako aukerak murriztuz.

Rol hirukoitza: Rol hirukoitzaren analisiaren bitartez gizon eta emakumeek egindako lanak 3 funtzio nagusi hauetan sailkatzen dira: *Lan produktiboak* etekin ekonomikoak erakartzen dituzten lanak dira; *lan erreproduktiboak* etxe barrutiaren eremuan ematen direnak dira, ez dute etekin ekonomikorik sortzen eta zaintza eta etxearen mantenuarekin daude lotuta. *Lan komunitarioak* borondatez gizartearen garapenerako egiten diren lanak dira. Tradizionalki lan produktiboak gizonen esku egon diren bitartean, emakumeak lan erreproduktiboetatik arduratu dira. Emakumezkoak lan merkatuan parte hartzeak ez du gizon eta emakumeen artean lan erreproduktiboen banaketa justua eragin. Ondorioz, emakumeek lan bikoitza dute, beraien garapen pertsonalerako eta lan komunitarioetan aritzeko aukerak murriztuz.

Baliabide eta etekinekiko iriste eta kontrol maila: Baliabide eta etekinekiko iriste maila gizon eta emakumeek baliabide (naturalak, ekonomikoak, produktiboak, politikoak, sozialak...) horiek erabiltzeko dituzten aukera ezberdinekin dago lotuta. Baliabide eta etekinen kontrola izatea berriz, hauen erabileraren inguruan erabakiak hartzeko aukera izatea da. Herri mailan emakume gehienek baliabide eta etekinak bereganatzeko aukerak izan arren, oraindik ere hauekiko kontrola eskuratzeko oztopo ugari dute.

PLANAREN EGITURA

Autonomi Erkidego mailan, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V.Planaren elaborazioa martxan egon arren, oraindik era hau onartuta ez egotean, Azpeitiko Plana Emakunderen IV. Plana oinarritzat hartuta egin da.

Gaur egun Autonomi Erkidegoan abian dagoen IV.Plana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 (otsailaren 18koa) Legearen onarpenarekin sortutako esparru berrian kokatzen da. IV.Plan honen egiturari dagokionez, lau ardatz eta 6 arlo lantzen dira. Ardatzak mainstreaming-a, ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren parte hartzea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna, eta emakumeen aurkako indarkeria dira. Arloei dagokienez kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna, eta hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena dira.

Azpeitiko Berdintasun Planaren dokumentuak Autonomi Erkidego mailan landutako planaren egitura jarraitzen du. Bertan agertzen diren ekintzak, Autonomi Erkidegoko Plangintzatik eta aurretiaz Azpeitian egindako genero diagnostikotik eratorritakoak dira:

ARLOAK	HELBURUAK	EKINTZAK
1.Neurri orokorrak	10	26
2.Hezkuntza, euskara eta gazteria	7	10
3.Kultura eta Kirola	5	9
4.Hirigintza, mugikortasuna eta ingurumena	4	7
5.Gizarteratzea	4	9
6.Lana eta enplegua	5	9
GUZTIRA	35	70

ARLOA	MAISTREAMING	JABEKUNTZA ETA PARTE HARTZEA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
Neurri orokorrak	1.1. Helburua: Berdintasun Politikak eta Plangintzak bultzatu eta ebaluatzeko baliabideak esleitu eta mekanismoak sortu. 1.2. Helburua: Gizon eta emakumeen egoera ezagutzeko tresnak landu, genero ikuspegia txertatzen duten ikerketa eta estatistikak areagotuz eta sexuaren araberako datuen bilketarako sistemak hobetuz. 1.3. Helburua: Enplegu publikoko hautapen prozesuetan berdintasunean oinarritutako irizpideak	1.7. Helburua: Udalak esku hartzeko aukera duen erabaki guneetan emakumeen presentzia orekatua bermatu. 1.8. Helburua: Herriko emakumeen jabeakuntza prozesua errazteko baliabideak martxan jarri eta mantendu	1.9. Helburua: Udal langileriak bizitza familiarra, laborala eta soziala uztartzeko bideak zabaldu	1.10. Helburua: Emakumeen kontrako indarkeria egoerak ekiditeko, prebenitzeko eta hauei aurre egiteko baliabideak eskaini

	barneratu udal egituran isla izan dezaten 1.4. Helburua: Genero ikuspegia udal arlo ezberdinetatik landu behar den gaia izanik, langileek gai honen inguruko gutxieneko edukiak ezagutzeaz gain, plangintza eta proiektuak diseinatzerakoan, hauek, kontutan hartzen dituztela bermatu. 1.5. Helburua: Parekidetasun Saila ikusarazi eta indartu, horretarako beharrezkoak diren baliabideak esleituz eta hartu beharreko neurriak definituz. 1.6. Helburua: Udalak eskainitako baliabide ekonomikoak esleitzeko arautegi bateratu bat landu eta bertan eskainitako diru laguntzak modu orekatuan emakume eta gizonen aprobetxamendurako erabili direla ziurtatu, sexu biekiko iriste maila aztertuz.			
Hezkuntza, euskara eta gazteria	2.1. Helburua: Herriko ikastetxeetako eta gainontzeko hezkuntza espazio informaletako hezkuntza programetan hezkidetzan oinarritutako baloreak barneratu. 2.2. Helburua: Emakumeen diskriminazioa indartzen duten hizkuntza erabilera, irudi eta edukiak dituzten hezkuntza materialak baztertu	2.3. Helburua: Hezkuntza baliabideak emakume etorkinengana hurbildu 2.4. Helburua: Herriko neska gazteen jabetze prozesua erraztu beraiei zuzendutako programa bereziak landuz	2.5. Helburua: Zaintza eta etxeko lanetan emakume eta gizonen parte hartze orekatua areagotu. 2.6. Helburua: Familien zaintza beharrei irtenbide bat emateko hezkuntza baliabide ezberdinak aztertu eta moldatu	2.7. Helburua: Mutil eta nesken artean indarkeriarik gabeko harremanak bultzatu eta hau identifikatzeko baliabideak eskaini
Kultura eta Kirola	3.1. Helburua: Herriko ekoizpen eta eskaintza kulturalari eta kirol ekimenei dagokionez, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko baloreak zabaltzeko. 3.2. Helburua: Emakumeen artean kirola sustatzeko baliabideak eskaini	3.3. Helburua: Emakumeek kulturaren eta kirolean duten presentzia indartu eta areagotu.	3.4. Helburua: Kirolean eta kulturaren erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna sustatzen duten guneak areagotu	3.5. Helburua: Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako baloreak zabaltzen dituzten kirol eta kultur guneak areagotu.

Hirigin-tza, mugikortasuna eta ingurumena	4.1. Helburua: Hirigintza arloan lanean ari diren eragile ezberdinei beraien eguneroko lanean genero ikuspegia txertatzeko tresnak eskaini	4.2. Helburua: Herriaren diseinuan eta antolamendu urbanistikoan genero ikuspegia txertatu.	4.3. Helburua: Herriaren plangintzan zaintza lana errazteko guneak sortu eta hau enpleguarekin eta norberaren bizitzarekin bateratzeko baliabideak eskaini	4.4. Helburua: Herriaren diseinu egokiaren bitartez herritarren eta batez ere emakumeen segurtasuna gehitu.
Gizarteratzea	5.1. Helburua: Gizartekintza Sailaren inguruko informazioa ezagutzeko tresnak abian jarri.	5.2. Helburua: Gizarte bazterketa jasateko dauden giza taldeei zuzendutako baliabideak egokitu, talde horietako emakumeen egoera eta baldintzak hobetzeko.	5.3. Helburua: Mendeko pertsonen zaintza emakume eta gizonen artean modu orekatu baten banatzeko neurriak hartu.	5.4. Helburua: Indarkeria jasan duten emakumeei eskainitako zerbitzuen kalitatea hobetu
Lana eta enplegua	6.1. Helburua: Prestakuntza eta enplegu zerbitzuetan eta herriko enpresetan genero ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak eman.	6.2. Helburua: Emakumeen laneratzeko baliagarriak izan daitezkeen gainontzeko baliabideak bultzatu eta ezagutarazi	6.3. Helburua: Lana eta enpleguaren inguruko erabakiak hartzen diren guneetan emakume eta gizonen presentzia orekatua bilatzeaz gain, berdintasunean oinarritutako baloreak zabaltu. 6.4. Helburua: Zaintza eta etxeko lanen inguruko ardurak emakume eta gizonen garapen profesionalean dituen eraginak ezagutu eta hau orekatzeko neurriak diseinatu	6.5. Helburua: Enpresetan jazarpen sexista prebenitzeko baliabideak eskaini.

PLANAREN JARRAIPENA ETA BALIOESPENA

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea ezinbesteko baldintzak dira honen eraginkortasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko. Jarraipenaren bitartez ekintzen ezarpen maila ezagutarazteaz gain, izandako zailtasunak eta jarraitutako estrategiak aztertuko dira, eta horretarako 3 lan egitura jarriko dira martxan:

Jarraipen batzordea: Jarraipen batzordea diagnostiko eta planaren elaborazio prozesuan lanean aritu den talde eragileko kideek osatuko dute. Gutxienez urtean 3 aldiz biltzea aurreikusten da: Urte bukaeran datorren urterako aurreikusitako ekintzen plangintza aztertzeko eta proposamenak egiteko, urte erdian ekintzen inplementazio maila neurtzeko eta urte hasieran burututako ekintzen eta helburuen betetze maila ezagutzeko eta urteko ekimenen balorazioa egiteko.

Planaren inplementazio prozesuan jarraipen batzordearen betebeharrak nagusia kanpo jarraipena eta ebaluazioa egitea izango da.. Bileren dinamizazioa, deialdiak egitea eta aktak jasotzea Parekidetasun Sailaren esku egongo da.

Batzorde teknikoa: Udal arloetako ordezkari teknikoek osatutako batzordea da. Urtean bi aldiz biltzea aurreikusten da: urte bukaeran urteko plangintza egiteko eta urte hasieran balorazioa eta ekintzen betetze maila aztertzeko. Batzorde teknikoaren egitura urteko plangintzaren beharren arabera molda daiteke, eta ondorioz partaideen inplikazio maila ere ezberdina izango da. Urteko bi bilerekin gain, urte erdian teknikari guztiekin elkarrizketak egingo dira, dauzkaten zailtasunak aztertzeko eta ekintzak betearazteko behar duten laguntza eskaintzeko.

Batzorde teknikoaren bileren deialdia egitea, aktak jasotzea eta dinamizazioa Parekidetasun Sailaren ardura izango da.

Batzorde politikoa: Udala osatzen duten alderdi politiko guztiak eta gainontzeko arlo guztietako batzordeetako ordezkariak bilduko dira batzorde politikoan. Honen helburua plana martxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideak esleitzeaz gain, planaren inplementazioa bermatzeko batzorde tekniko eta jarraipen batzordearekin beharrezkoa den komunikazioa finkatzeko aurrerapausoak ematea da. Bileren maiztasunari dagokionez, urtean bi aldiz biltzea aurreikusten da: urte bukaeran urteko plangintza egiteko eta urte hasieran balorazioa eta ekintzen betetze maila aztertzeko. Batzorde politikoaren bileren deialdia egitea, aktak jasotzea eta dinamizazioa Parekidetasun Sailaren ardura izango da.

Planaren ebaluazioa gauzatzeko, ekintzen fitxetan agertzen diren adierazleak eta informazio iturriak, batzordeetako bileren aktak eta garrantzitsua izan daitekeen edozein informazio bilduko duen txostena landuko da urtero. Txosten honen elaborazioa Parekidetasun Sailaren ardura izan arren, gainontzeko eragileen inplikazio mailak baldintzatuko du (fitxen betetze maila, bileretan parte hartze maila...).

Azpeitiko Udala Gipuzkoako Jabetze Eskolako kidea izanik, planaren inplementaziorako sareak eskaintzen dituen aukerak (zenbait ekintza komunean burutzeko koordinazioa, komunikazioa, esperientzien trukaketa...) aprobetxatzea ezinbestekoa da honen arrakasta ziurtatzeko. Planaren onarpenarekin, Azpeitiko Udalak ***Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalaren Sarean*** partehartzeko eskakizuna egingo du Eudelen, lan egitura honen ibilbideak eguneroko lanerako eskaintzen dizkion abantaila eta esperientziaz baliatuko delarik.

1. NEURRI OROKORRAK

MAINSTREAMING

1.1. Helburua: Berdintasun Politikak eta Plangintzak bultzatu eta ebaluatzeko baliabideak esleitu eta mekanismoak sortu.

1.1.1. Ekintza: Plana martxan jartzeko eta honen jarraipena egiteko beharrezkoa den jarraipen batzordea sortu eta dinamizatu.

Azalpena: Diagnostikoa eta plana landu den bitartean lanean aritu den talde eragileko partaideak izango dira “jarraipen batzordea” osatuko dutenak. Gutxienez urtean 3 aldiz bilduko dira (urteko plangintza diseinatzeko, ekintzen jarraipena egiteko eta urteko ebaluazioa egiteko).

Arduradunak: Parekidetasun Saila

Implikatutako agenteak: Talde eragileko eta Emakumeen Mahaiko kideak

Aurrekontua: Ez da gastu gehigarririk aurreikusten. Langileriaren lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Urteko bilera kopurua:
- Parte hartzaileen kopurua:

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Bileren deialdiak
- Bileren aktak

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Ekintzak burutzeko zailtasunak eta jarraitutako estrategiak:
- Helburuen betetze maila (bilera kopurua, parte hartze maila, egindako proposamenen eraginkortasuna...)

1.1. Helburua: Berdintasun Politikak eta Plangintzak bultzatu eta ebaluatzeko baliabideak esleitu eta mekanismoak sortu.

1.1.2. Ekintza: Plana martxan jartzeko eta honen jarraipena egiteko beharrezkoa den batzorde teknikoa sortu eta dinamizatu.

Azalpena: Batzorde teknikoa planean aurreikusten diren ekintzen arduradunek edota hauen ordezkariak osatuko dute (planean identifikatutako arlo bakoitzetik gutxienez ordezkari bat). Urteko plangintzaren arabera, honen egitura moldatzeko aukera zabalik utziko da. Jarraipen batzordean landutako plangintza talde teknikoaren lanerako oinarria izango da eta bertako kideek, dagozkien betebeharrak bete beharko dituzte. Gutxienez urtean bi aldiz bilduko dira (urte bukaeran datorren urteko plangintza lantzeko eta hasieran aurrekoaren ebaluazioa egiteko). Urte bukaeran eta ebaluazio fitxak oinarritzat hartuz Parekidetasun Sailak batzorde politikoan aurkeztu beharreko ebaluazio txostena landuko du.

Arduradunak: Parekidetasun Saila

Inplikaturako agenteak: Udaleko sail guztiak

Aurrekontua: Ez da gastu gehigarririk aurreikusten. Langilearen lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Urteko bilera kopurua:
- Parte hartzaileen kopurua arloka eta sexuka:
- Ebaluazio fitxen betetze mailaren portzentajea:
- Diseinatutako neurrien betetze mailaren portzentajea:

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Bileren deialdiak
- Bileren aktak
- Planaren ebaluazio fitxak

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Ekintzak burutzeko zailtasunak eta jarraitutako estrategiak arloka:

1.1. Helburua: Berdintasun Politikak eta Plangintzak bultzatu eta ebaluatzeko baliabideak esleitu eta mekanismoak sortu.

1.1.3. Ekintza: Plana martxan jartzeko, indartzeko eta honen jarraipena egiteko beharrezkoa den batzorde politikoa dinamizatu.

Azalpena: Batzorde politikoaren zeregin nagusia plana martxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideak esleitu eta honen jarraipena egitea izango da, horretarako Parekidetasun Saila beharrezkoa den dokumentazioa prestatu eta aurkeztu beharko du aurreikusten diren urteko bi bileretan (urte bukaeran datorren urteko plangintza eta urte hasieran aurreko urteko ebaluazioa egiteko).

Arduradunak: Parekidetasun Saila

Inplikaturako agenteak: Parekidetasun Batzordeko kideak eta udaleko sail guztietako ordezkari politikoak

Aurrekontua: Ez da gastu gehigarririk aurreikusten. Langileriaren lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Urteko bilera kopurua:
- Parte hartu duten ordezkari politikoen kopurua arloka eta sexuka:

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Bileren deialdiak
- Bileren aktak
- Bileretan aurkeztutako dokumentazioa

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Ekintzak burutzeko zailtasunak eta jarraitutako estrategiak:
- Izandako parte hartze maila eta inplikazioa

1.1. Helburua: Berdintasun Politikak eta Plangintzak bultzatu eta ebaluatzeko baliabideak esleitu eta mekanismoak sortu.

1.1.4. Ekintza: Udal ordezkari politikoei zuzendutako formazioa eskaini, emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko jakintzak eta tresnak eskura ditzaten.

Azalpena: Udal ordezkari politikoen inplikazioa ezinbestekoa da planaren inplementazio egokia bermatzeko, horregatik eta honen inguruko jakintzak eskura ditzaten formazio saio bat antolatzea aurreikusten da.

Arduradunak: Parekidetasun Saila

Inplikaturako agenteak: Udaleko sail guztietako ordezkari politikoak

Aurrekontua: Eskainitako formazioaren ezaugarrien arabera finkatuko da

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Esakinitako ordu kopurua
- Parte hartu duten ordezkari politikoen kopurua arloka eta sexuka:

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Landutako edukiak
- Parte hartzaileen balorazioak

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Ekintzak burutzeko zailtasunak eta jarraitutako estrategiak:
- Izandako parte hartze maila eta inplikazioa

1.1. Helburua: Berdintasun Politikak eta Plangintzak bultzatu eta ebaluatzeko baliabideak esleitu eta mekanismoak sortu.

1.1.5. Ekintza: Genero ikuspegia zeharkakotasunez udal egituraren txertatzeko udal ordenantza bat landu

Azalpena: Sexuen arteko berdintasunaren kontzeptua Udaletik lantzen diren arlo ezberdinetan txertatzeko ordenantza landu.

Arduradunak: Idazkaritza eta Gobernu Batzordea

Inplikaturako agenteak: Udal arlo guztietako ordezkari politikoak, Parekidetasun Saila

Aurrekontua: 9.000€

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Prozesuan parte hartutako arloen portzentajea

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Udal ordenantza

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Ekintzak burutzeko zailtasunak eta jarraitutako estrategiak:

- Izandako parte hartze maila eta inplikazioa

1.1. Helburua: Berdintasun Politikak eta Plangintzak bultzatu eta ebaluatzeko baliabideak esleitu eta mekanismoak sortu.

1.1.6. Ekintza: Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko idazkaritza teknikoaren irudia sortu.

Azalpena: Planaren jarraipena eta ebaluazioa modu eraginkorrean gauzatzeko, idazkaritza tekniko sortuko da. Honen betebeharrak nagusia, batzorde ezberdinekin egin beharreko bilerak dinamizatu eta urteko txostena lantzea izango da. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko idazkaritza tekniko lagungarria bada ere, honek burutu beharreko lan zama urtero moldatuko da, azkenean, berdintasun gaiei dagokienez, Udalaren autonomia bultzatzea lortu nahi baita. Beraz, idazkaritza teknikoaren lana planaren 4 urteetan mantendu arren (ebaluazio txostena eta jarraipenerako bileren dinamizazioa), helburua, kanpo laguntza urtetik urtera murriztea litzateke.

Arduradunak: Parekidetasun Saila

Inplikaturako agenteak: Udaleko sail guztiak, Idazkaritza teknikoak, batzorde teknikoak, jarraipen batzordea eta batzorde politikoa

Aurrekontua: 4.000 euro 2010.urterako (gainontzeko urteetan kopuru hori murrizten joatea aurreikusten da)

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Plana ebaluatzeko eskuratutako fitxen kopurua
- Dinamizatutako bileren kopurua

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Ebaluazio txostena
- Bileren deialdiak eta aktak

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Planteatutako ebaluaziorako sisteman aldaketa asko egin al dira? Zeintzuk? (Erabilitako ebaluaziorako metodologiaren inguruko hausnarketa egin behar da urtero, beharrezkoak diren aldaketak barneratuz)

1.2. Helburua: Gizon eta emakumeen egoera ezagutzeko tresnak landu, genero ikuspegia txertatzen duten ikerketa eta estatistikak areagotuz eta sexuaren arabera datuen bilketarako sistemak hobetuz.

1.2.1. Ekintza: Udaletik egiten diren estatistika, inkesta, ikerketa eta datu bilketa guztietan sexu aldagaia sistematikoki sartu. Aldi berean, sexu aldagaia erabiltzen diren gainontzeko aldagaiekin gurutzatzeko aukera eman.

Azalpena: Emakume eta gizonen egoera eta beharrak hobeto ezagutzeko egiten diren datu bilketetan sexu aldagaia sistematikoki barneratzeaz gain, sexuen arteko ezberdintasunen inguruko informazioa eskainiko duten adierazleak landu behar dira. (4/2005 Berdintasun Legearen 16.artikulua)

Arduradunak: Informatika arduraduna

Inplikaturako agenteak: Udaleko sail guztietako langileria eta ikerketa eta estatistikak egiteko kontratatutako enpresak

Aurrekontua: Ez da gastu gehigarririk aurreikusten. Langileriaren lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Berrikusitako aplikazio informatikoen kopurua
- Berralditutako aplikazio informatikoen kopurua
- Sexu aldagaia kontutan hartzeaz gain, hau gainontzeko aldagaiekin gurutzatzeko aukera eskaintzen duten ikerketen portzentajea egindako guztiekiko.

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Aldatu diren datu bilketen formularioak
- Egindako datu bilketa/ikerketa ezberdinen memoriak

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Ekintza burutzeko identifikatutako zailtasunak eta jarraitutako estrategiak:
- Ekintza burutzeko izandako parte hartzea eta arloen inplikazioa (bakoitzak duen errealitatea kontutan hartuz).

1.3. Helburua: Enplegu publikoko hautapen prozesuetan berdintasunean oinarritutako irizpideak barneratu udal egiturari izan dezaten

1.3.1. Ekintza: Emakumeen presentzia urria den lan eremuetan aritzeko egiten diren enplegu publikoko deialdietan klausula bat jarri non trebakuntzaren ikuspegitik gizon eta emakumearen artean gaitasun bera dagoenean eta lan eremu horretan emakumeen presentzia %40a baino gutxiago denean emakumeari emango zaion lehentasuna. Neurri bera aplikatuko da gizonen presentzia urria den lan eremuetan eta gaitasun bera frogatzerakoan gizonari emango zaio lehentasuna.

Azalpena: Mota honetako neurriak finkatutako rol eta estereotipoak puskatzera garamatzate, emakume eta gizonen esleitutako lan eta enpleguen inguruan jendarte mailan onartutako sinesmenak alboratzeko baliagarriak baitira (4/2005 Berdintasun Legearen 20. artikulua).

Arduradunak: Giza Baliabideen arduraduna, Idazkaria

Inplikaturako agenteak: Bete beharreko lanpostu berriak kokatzen diren arloak

Aurrekontua: Ez da gastu gehigarririk aurreikusten. Langilearen lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Neurria aplikatu den deialdien portzentajea guztiekiko

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Egindako enplegu publikoko deialdiak

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Ekintza burutzeko identifikatutako zailtasunak eta jarraitutako estrategiak:

1.3. Helburua: Enplegu publikoko hautapen prozesuetan berdintasunean oinarritutako irizpideak barneratu udal egituran isla izan dezaten

1.3.2. Ekintza: Udal lanpostuen balorazioa egin, kategoria, talde eta soldatak lanpostuen ezaugarrien irizpideen arabera finkatuz.

Azalpena: Diagnostikoko emaitzen arabera, talde eta kategoria profesionalei dagokienez ezberdintasun handiak daude langileen artean eta orokorrean emakumeak dira soldata baxuenak eskuratzen dituztenak. Hori dela eta, beharrezkoa da lanpostuen balorazio bat egitea, bakoitzaren betebeharrak eta ardurak definituz eta hauen araberako soldatak zehaztuz.

Arduradunak: Giza Baliabideen arduraduna, Alkatetza

Inplikaturako agenteak: Udaleko sail guztiak

Aurrekontua: Ez da gastu gehigarririk aurreikusten. Langileriaren lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Kategoria talde eta soldatei dagokienez aldaketak izandako lanpostu kopurua eta aldaketa mota, langilearen sexuaren arabera.

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Udal organigrama eta soldaten taula eguneratua

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

1.4. Helburua: Genero ikuspegia udal arlo ezberdinetatik landu behar den gaia izanik, langileek gai honen inguruko gutxieneko edukiak ezagutzeaz gain, plangintza eta proiektuak diseinatzerakoan, hauek, kontutan hartzen dituztela bermatu.

1.4.1. Ekintza: Udalak zeharka kontratatzen dituen enpresa eta langileei dagokienez, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko lana egin dutela frogatzen dutenei kontutan hartuko zaie puntuatzeko orduan.

Azalpena: Aurkeztutako proiektu edo eskaintzak genero ikuspegitik landuta egotea baloratuko da, horretarako, hau neurtzeko irizpide berezi bat sartuko da esleipenerako irizpideen artean, adibidez: *“Enpresan genero politika aplikatzen dela egiaztatzearen, gehienez XXX puntu; horretarako ondoko gaiak hartuko dira kontutan:*

Kontratatutako emakumeen portzentajea lanpostuka

Landutako berdintasun plangintzak (berdintasun plana?, bateragarritasun planik edo neurririk? Sexu jazarpenaren aurkako protokolorik edo neurririk?, sexuen berdintasunaren inguruko formazio berezirik?)

biakuntza ez sexistaren erabilera”

Arduradunak: Idazkaria

Inplikaturako agenteak: Udaleko sail guztiak eta zeharka kontratatutako enpresak

Aurrekontua: Ez da gastu gehigarririk aurreikusten. Langileriaren lan orduak

Kronograma:

2010	2011	2012	2013

Ebaluazio tresnak

Prozesu adierazleak:

- Neurria aplikaturako deialdien kopurua guztiekiko
- Puntuazioa eskuratu duten enpresen portzentajea kontratatutako guztiekiko

Entregatu beharreko dokumentazioa:

- Kontratazioen deialdiak
- Enpresek irizpide honi dagokionez betetako fitxa

Ekintzaren betetze maila:

OSOA	ZATIKA	EZER EZ

Galdera kualitatiboak:

- Ekintza burutzeko identifikaturako zailtasunak eta jarraitutako estrategiak:
- Neurri honek nolabaiteko eragina duela uste al duzu? Zein izan da eskaintzak aurkeztu dituzten enpresen erreakzioa?

1.4. Helburua: Genero ikuspegia udal arlo ezberdinetatik landu behar den gaia izanik, langileek gai honen inguruko gutxieneko edukiak ezagutzeaz gain, plangintza eta proiektuak diseinatzerakoan, hauek, kontutan hartzen dituztela bermatu.

